

86. FITXA Ehun ekonomiko, inklusibo eta jasangarria sortzeko helburua duten Gizarte Ekonomia Bultzatzeko Plan Integralerako laguntzak, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, 2025erako.

Nori zuzendua: gizarte-ekonomiako erakundeak; gizarte-ekonomiako erakundeekin elkartutako beste onuradun batzuk: Unibertsitate publikoak eta pribatuak, ikerketa-zentroak, autonomia-erkidegoetako administrazioak, **toki-administrazioako erakundeak** eta sektore publiko instituzionaleko erakundeak.

Sarbide-esteka: <https://sede.mites.gob.es/inicio>

Erreferentziazko araudia: [Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren 2024ko abenduaren 27ko Aginduaren laburpena. Agindu horren bidez, 2024rako izapidetze aurreratuko laguntzetarako deialdia egin zen, ehun ekonomiko, inklusibo eta jasangarri bat sortzeko Gizarte Ekonomia Bultzatzeko Plan Integralerako, 2025erako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.](#)

Eremuak: Gizarte ekonomia

Zenbatekoa: 39.257.187,54 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/02/12

Laburpena

Dirulaguntzak, norgehiagoka-erregimenean, **ehun ekonomiko, inklusibo eta jasangarri bat sortzeko Gizarte Ekonomia bultzatu** nahi duten proiektuak egiteko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1 programa: TRANSFORMA_ES: Zailtasunak dituzten edo egungo belaunaldi-erreleborik ez duten zein aurreikusten ez duten enpresa bideragarrietan enplegua sortzeko eta mantentzeko proiektuak, langileek kudeatutako gizarte-ekonomiako enpresa-formulak erabilita enpresa horiek eraldatuz.

2 programa: INICIATIVA_ES: Gizarte-ekonomiaren produkzio-sareko erakundeak sortzeko eta sendotzeko proiektu berritzaileak, belaunaldien arteko erreleboa eta gazteen eta emakumeen ekintzailtza azpimarratzen dutenak.

3 programa: IMPULSA-TEC: Gizarte-ekonomiako enpresen modernizazio teknologikoari laguntzeko proiektu eraldatzaileak, plataforma digitalak sortuz, prozesuak automatizatuz eta tresna teknologikoak erabiliz, herritarren ongizatea hobetzeko, batez ere landa-eremuetan.

4 programa: ALIANZAS_ES: Kooperatiba sareak, lan-sozietateak eta gizarte-ekonomiako beste formula batzuk sustatzeko proiektuak, gizarteari zerbitzu integral berriak eskaintzeko neurriekin batera.

5 programa: SOSTENIBLE_ES: Gizarte-ekonomiako enpresen trantsizio jasangarriak eta inklusiboak bultzatzeko proiektuak, kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboek arreta eskaintzera bideratuak.

Gauzatzeko epea

Proiektuak dirulaguntzaren eskabidea aurkezten den egunetik **2025eko uztailaren 31ra** bitartean gauzatu ahal izango dira.

Intereseko beste alderdi batzuk

Eskaera elkarte batek aurkezten duenean, ordezkari edo ahaldun bakarra elkarte osatzen duten erakundeetako batekoa izan beharko da. Elkarte publiko-pribatua bada, ordezkari edo ahaldun bakarra erakunde onuradun pribatu batekoa izan beharko da.

Proiektuak gutxienez **2 autonomia-erkidegotan** eragina izan behar du (garatu behar da).